**ERABAKIA, 2016ko ekainaren 17koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 250 Ikastegiko bibliotekaren arduraduna lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa**.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2016ko maiatzaren 16ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena**.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2016ko ekainaren 13koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena**.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa**.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarien Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena**.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena**.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarien Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordiao hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

**Laugarrena**.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa**: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena**.- Esleipena 2016ko ekainaren 20ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Laugarrena**.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Admnistratzaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena**.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2016ko ekainaren 17an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko EHAA)

UPV/EHUko GERENTEA

GERENTZIA GERENCIA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# I. ERANSKINA

## ZERBITZU BETEKIZUNA 2016/05/16

| | |
|---|---|
| Esleipenduna: | Maria Jesus Areizaga Arana |
| Lanpostuaren Izena: | Ikastegiko bibliotekaren arduraduna |
| Lanaldia: | Arautua larunbatak barne |
| Eref.: | F 250 |
| Zenbatgarrena: | 15 |
| Maila: | 23 |
| Taldea: | B |
| REskala: | Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Laguntzailea |
| H.E.: | 3; |
| Langunea: | BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA |
| Campus: | BIZKAIA |
| BE: | |
| Ondorio data: | 2016ko ekainaren 20a |

# II. ERANSKINA

## PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2016ko maiatzaren 16ko DEIALDIA

| 1433 | F 250 | Ikastegiko bibliotekaren arduraduna | Hor. 15 | HE 3 | BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA |
|---|---|---|---|---|---|

| ADJ | DNI | DEITURAK, Izena | ORD. | PUNT. GUZT. | ANTZIN. | | EMANDAKO SERBITZUAK GUZT. | F = Taldea | | L ≈ Taldea | | F & L ≠ Tald | | EHUn ZERB. | | F = Taldea | | L ≈ Taldea | | F & L ≠ Tald | | BESTE ADM. | | GRADUA | | | TITUL. | HIZK. | EUSKARA | | ELKAR. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Urteak | Punt. | | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | G | <> | Punt. | Puntos | Puntos | PL | Ptos. | Puntos |
| a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Adj. | 14596120K | AREIZAGA ARANA, MARIA JESUS | | 38,3000 | 16 | 7,2 | 18,00 | 182 | 18,00 | 11 | 1,10 | | | 191 | 18,00 | | | | | | | | | 21 | -2 | 1 | 2,00 | 1,00 | 3 | 9,1 | |
| | 30555488B | GONZALEZ BARBERO, MARIA ANGELES | | 22,6000 | 6 | 2,7 | 8,30 | 83 | 8,30 | | | | | 83 | 8,30 | | | | | | | | | 21 | -2 | 1 | 1,50 | | 3 | 9,1 | |
| d) Behin behineko funtzionarioak. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | 11905653W | RUIZ DE LA FUENTE, INMACULADA | | 36,4200 | 24 | 10,8 | 18,00 | 194 | 18,00 | | | | | 180 | 18,00 | | | | | 20 | 2,00 | 20 | 2,00 | | | | 2,00 | | 2 | 5,62 | |
| | 30612979W | ALONSO IZURZA, MIKEL GOTZON | | 27,3000 | 9 | 4,05 | 11,90 | 113 | 11,30 | 6 | 0,60 | | | 119 | 11,90 | | | | | | | | | | | | 2,25 | | 3 | 9,1 | |
| | 45625364B | GARCIA GONZALEZ, MARIA TERESA | | 22,0500 | 11 | 4,95 | 7,50 | 55 | 5,50 | | | | | 55 | 5,50 | | | | | 20 | 2,00 | 20 | 2,00 | | | | | 0,50 | 3 | 9,1 | |
| | 30672065R | AGUIRRE BERGANZA, AINHOA | | 11,6500 | 1 | 0,45 | 2,10 | 20 | 2,00 | | | | | 20 | 2,00 | | | | | 1 | 0,10 | 1 | 0,10 | | | | | | 3 | 9,1 | |
| | 14605424X | OLABARRIETA ASPIAZU, ASIER | | 7,5200 | 0 | 0 | 0,90 | 5 | 0,50 | | | | | 5 | 0,50 | | | | | 4 | 0,40 | 4 | 0,40 | | | | 1,00 | | 2 | 5,62 | |

**ADJ - Esleipenduna** **R- Uko egin dio prozesuari** **O- Beste deialdiko lanpostua aukeratu du**